Espazio kide batean, eraso bat	56
Nola landu pertsona erasotuaren babesa?	56

Sarrera:

Eta zergatik indarkeria sexistari aurre egiteko protokolo bat?

Zoritxarrez, hedabideetan ia egunero izaten dugu indarkeria sexistari dagokion albisteren baten berri. Gertakari hauek bataila bezala aurkeztuak dira, biktima eta erasotzaileen arteko borroka bezala. Gainera, erasotzaileak askotan “bere onetik ateratako” “ero”tzat hartzen dira, pertsona desberdin bezala. Sarritan ez gara konturatzen indarkeria sexista ezarrita dagoen sistemaren ondorioa dela, sistema patriarkal eta kapitalista baten ondorio; sistema hierarkiko, androzentriko, matxista, heteronormatibo... baten menpe gaudela. Sexu-genero sistema hau denok daukagu, gehiago edo gutxiago, geureganatua. Horregatik, indarkeriazko gertaerak ez dira bakarrik prentsan ikusten eta irakurtzen ditugunak; gu geu ere horien eragile edo lekuko izaten ahal gara, askotan kontziente izan ez arren.

Antolakunde Feministen Genero Indarkeriaren Aurkako Estatu-Sarearen arabera⁷, 2013an Estatu Espainiarrean 62 hildako egon ziren indarkeria sexistaren ondorioz. Ezin dugu ahaztu horrelako kasuak ez daudela gugandik urrun, eta gune edo eremu hurbilenetan ere gertatzen ahal direla: gure ibarrean, militatzen dugun eragileetan, gure etxeetan...

Mota honetako gertaera bat pasatzen denean, askotan sentimenduek hartzen gaituzte, eta penaz, amorruez, modu paternalistan... jokatzeko moduak erabiltzen ditugu, eta beharbada blokea gaituzte. Erasotzailea gure borroka kide, anaia, auzokide, laguna... dela izan dela onartzea ere zaila egiten zaigu maiz. Horregatik, garrantzitsua iruditzen zaigu aurre-hausnarketa bat egitea, horrelako egoera bat ikusi, ezagutu edo kontatzen dugutenean, ahalik eta akats gutxien eginez jokatu ahal izateko. Guri, eragile gisa eta beste mugimendu sozialetako militante garen heinean, gure borrokek lantzen eta aurrera eramaten ditugun espazioetan arreta jartzea ezinbestekoa iruditu zaigu. Eremu hauetan ere diskriminazioak ekidin behar ditugu, eta gertatzen badira, ikusaraziak izan behar dira eta haien kontra nola jo jakin behar dugu. Horretarako, hainbat testu eta fanzinetan oinarritu gara; horietatik, honako hauek azpimarratu nahiko genituzke: “Jornades sobre agresions”, “La gota”, “Torres más grandes se han visto caer”, “Tijeras para todas”...

Hala ere, indarkeria sexistari aurre egin ahal izateko, lehenik eta behin honi buruz mintzatzen garenean zeri buruz ari garen jakin behar dugu.


⁷ <http://www.redfeminista.org>

Indarkeria Sexista?

Sexu-genero sistemaren barruan boterea duen posizio batetik (gizonezkoak) gutxietsia den beste posizio batera (emakumezkoak) eragiten den indarkeriaz hitz egiteko, hainbat kontzeptu erabiltzen dira, hainbat xehetasun kontuan hartzen dituztenak, esate baterako, emakumeen aurkako indarkeria⁸, indarkeria sexista⁹, indarkeria matxista¹⁰... eta normalean entzuten duguna, genero indarkeria⁵.

Gure ikuspegi eta protokoloari hobekien egokitzen zaizkienak erabiltzea nahiago izan dugu guk: genero indarkeria, indarkeria sexista eta indarkeria matxista. Horregatik, hirurak erabiliko ditugu, ezberdintasunik egin gabe, protokoloan zehar.

Halaber, mota askotakoa izan daiteke indarkeria matxista. Identifikatzeko errazena dena indarkeria fisikoa (kolpeak, bultzadak) dugu; sexual eta osasun sexual eta ugalketakoa ere badaukagu. Beste indarkeria matxista mota batzuk hauek dira: indarkeria psikiko edo psikologikoa (xantaia, irainak, mespretxua...), indarkeria ekonomiko eta ondarezkoa (dirua erabiltzearen debekua, herentzietatik kanpo uztea...), indarkeria soziala (harremanak mugatzea), indarkeria sinboliko edo instituzionala (hedabideak, lan esparrua...), ingurumenekoa (ingurua suntsitu, objektuak ezkutatu...), adin txikikoen aurkako indarkeria (ama kontrolatzeko adin txikikoak kontrolatzea), feminizidioa (emakumeen hilketak genero arrazoiengatik). Hala ere, dokumentu eta aldarrikapen feminista asko dago, pertsona bat



erasotua sentitzen denean erasoaz hitz egin dezakegula esaten dutenak; izan ere, indarkeriak hamaika aurpegi izan ditzake, eta intentsitateak desberdinak izan daitezke (halaber, erantzunak ere askotarikoak izan daitezke). Pertsona batek **bere pribilegio patriarkalak beste norbaiten gaintik egoteko eta mugak gainditzeko erabiltzen dituenean**, eraso batez ari garela esaten ahal da. Hau ulertzeko, garrantzitsua da gure muga eta limite propioak ezartzea: zer dira mugak? Nola ulertzen ditugu? Aldakorrak dira? Sozializazioarekin zerikusirik al dute? Eraso bat botere **nagusikeria** da, ez da gaizkiulertu bat, ez da txantxa bat...

1. IRUDIA: "TORRES MÁS ALTAS HE VISTO CAER" FANZINETIK ATERATA

² Erasotzaile-biktima binomioa azpimarratzen du.

³ Desberdintasun fisikoak direla eta, teorikoki eta praktikan emakumea gutxiesten duen teorian oinarritua da (matxismoa, misoginia, homofobia).

⁴ Fenomenos soziokulturala, sexismoaren seinale, maskulinoa den guztia, femeninoarekin konparatuz, gutxiesten duena.

⁵ Gizarte patriarkal batean nagusitze/sumisio/dominazio sistema mantentzeko erabiltzen dena.

Iturri desberdinetako adierazle zenbait badira, erasoak edo indarkeria identifikatzeko laguntza ematen digutenak; izan ere, tipologia batzuk detektatzeko zailak dira.

Erasotzailearengan:

Zure sentimenduei entzungor egiten die sarri.

Emakumeak talde gisa iraindu edo barregarri uzten ditu.

Bere oniritzia, estimu edo maitasuna sari edo zigor gisa erabiltzen du.

Eremu pribatu edo publikoan umiliatzen zaitu (kritikak, irainak, oihuak)

Zurekin batera harreman sozialak izateari uko egiten dio.

Dirua kontrolatzen dizu eta erabakiak hartzen ditu.

Ez dizu lan egiten "uzten".

Zure lagun edo/eta senideengandik urruntzen zaitu.

Batzuetan, zu uztearen edo zuri edo familiari min ematearekin mehatxatzen zaitu.

Umeak zigortzen ditu edo ez ditu zaintzen. Hauek zuri kentzearekin mehatxatzen zaitu, bereizketarik badago.

Genero indarkeria: seinaleak¹¹

Maiz nire denbroa kontrolatzen du.

Jeloskorra eta posesiboa da.

Desleala izatea eta ligatzea leporatzen dit.

Denbora guztian lagunekin eta familiarekin harremanak izateko gogoia kentzen dit.

Nire gastuak kontrolatzen ditu eta azalpenak eskatzen dizkit.

Besteen aurrean umiliatzen nau.

Balio sentimentaleko objektuak apurtzen ditu.

Sexu harremanak izatera behartzen nau.

Laguntza animaliak erasotzen ditu.

Seme-alaben aurrean autoritatea kentzen dit.

Seme-alabekin norgehiagoka ari da, nire arretagatik.

Zu:

Askotan ezinegon fisikoak izaten dituzu, adibidez: buruko mina, torazikoa, bizkarrekoa, abdominala, pelbikoa; insomnia, itolarria; lesio larriak leku askotan, ubeldurak, erosioak, mozteak...

Antsietatea, nahastea, depresioa, erru sentimendua, autoestimua baxua...

Zehaztu gabeko minak sentitzen dituzu...

¹¹ <http://nomasvg.com/> wer orritik eta Andaluziako Juntaren genero indarkeriari buruzko informazio-koaderno batetik ateratakoa.

(http://www.juntadeandalucia.es/export/drupaljda/Violencia_Genero_Ficheros_Cuaderno_informativo_de_la_violencia_sobre_la_mujer_Andalucxa-2.pdf)

Garrantzitsua da ulertzea genero indarkeria **pixkanaka** agertzen dela harreman baten baitan. Harremanaren lehenengo egunean mutil batek neska bati zaplasteko bat emanen balio, seguraski neskak ez luke harreman gehiagorik izan nahiko. Askotan, beste pertsona batzuk kritikatzin dira, adibidez, beste emakume batzuen janzkera, eta horrela, gauzak nola egin behar diren esaten hasten da. Pixkanaka eta leunki kontrola, gutxiespena... hasten dira. Genero indarkeria kasu askotan, ez da inoiz eraso fisikorik egiten, erasoak psikologikoak izaten dira. Horregatik, indarkeria hau ikusten eta detektatzen zaila da, legalki, pertsonalki eta gertuko inguruez gain. M. Lorente Acostak (2012) esaten du denboran zehar luzatzen diren tratu txar hauek hondatze psikologiko bat eragiten dutela, lehenbizikoz inguruarekin emakumeak duen harremanean eragina dutenak *“y continua después corroyendo, como la polilla a la madera, su vida interior”*.

Gainera, genero indarkeria zikloka agertzen da; hau funtsezkoa da prozesua ulertu ahal izateko, eta “zirkulu”tik ateratzeko zailtasunak ulertzeko.

Leonor Walker (1978) izeneko psikologo ipamerikarrak hiru fase bereizi egin zituen:

Tentsio metaketa: erasotzen duena haserretzen joaten denean eta umore desegonkor bati loturik zenbait gatazka gertatzen direnean ematen da.

Tentsio hau mugaraino heltzen denean, **indarkeriak eztanda egiten du** eta eraso gertatzen da.

“Eztei-bidaia” edo **“adiskidetzea”** erasotzaileak barkamena eskatzen duenean gertatzen da, eta gertatu denagatik damutzen dela esaten duenean. Hau da harremanetik ateratzea zaila egiten duen fasea; izan ere, indarkeria jasaten duenak fase honetan guztiz desberdina den pertsona bat ikusten du, maite dituen ezaugarri asko dituen. Horregatik, ez da emakumea gaitzetsi behar erasotzailearekin bueltatzeagatik, eta horrela ere, bere istorioak balio berdina dauka. Norbaitekin gertatzen ari denari buruz hitz egiten hastea dagoeneko pausu handia da, eta harremanetik ateratzeko prozesu gogorarekin aurrera egiteko urrats garrantzitsua.



Jarrera hauek intentsitate baxukoak direnean, **mikromatxismo** deitzen zaie. Horrela ulertzen dira: “menperatze jarrera “suabeak” edo oso intentsitate baxukoak, eguneroko bizitzaren inposaketa, gehiegikeriak, abusuak... Mikromatxismoak, zehazki, menperatze gaitasun handiko arteak eta moldeak erabiltzea da, agerikoa ez den moduan. Gizonezkoek gelditu gabe erabiltzen dituzten jarrera eta ekintza ia ikusezinak

dira” (Bonino, 2004). Lau mota desberdin daude, eta hauen barnean ere azpimotak aurkitzen ahal ditugu:

- Mikromatxismo **utilitarioak, erabilgarriak**: zaintza eta etxekoa bezalako eremuetan, emakumezkoaren erabilgarritasuna eta prestutasuna aprobetxatzea.
- **Ezkutatutako** mikromatxismoak: hainbat egoeratan aurkitzen ahal dira, esate baterako, emakumearen amatasuna azpimarratzean (horrela, emakumeak “besteentzako izakiak” direla esaten duen ideia nagusitzen da, ordu guztietan zaintzara dedikatzea bideratuak dira), emakumea emozionalki esplotatzeko estrategiak (bere buruari buruzko zalantzak sortu, autoestimua jaitsi...), autoritatea kentzeko estrategiak, irainak, paternalismoa, intimitate faltaren sorrera, urruntzea, hitz egin nahi ez izatea, gezurrak...
- **Krisiko** mikromatxismoak: harremana berdintasunera hurbiltzen denean gertatzen da, boterea mantentzeko. Adibide bezala honak hau aipatzen ahal dugu: laguntzeko intentzioa erakustea eta hitza ez betetzea, alde batera uzteko mehatxuak, urrunketa, merituak egin, azaleko aldaketak, pena ematea...
- **Behartzeko** mikromatxismoak edo **zuzenak**: indarra erabiltzen da (ez fisikoa), beldurraraztearen bidez egiten dira, agintea hartzea bat-batean, “arrazoi”aren erabilera, argudioak inposatzeko helburuz (ideia baten inguruko argudioak ematean, errealitate hori guztiz egiazkoa izatea suposatzea), gehiegizko insistentzia edo “nekatuta egoteagatik irabaztea”, diruaren kontrola eta espazio fisikoaren gehiegizko erabilera.

Nork erabiltzen eta nork sufritzen du indarkeria?

Edonork. Tristeki, edonor izaten ahal da erasotua, edonork jasan dezake **indarkeria** eta edonor izan daiteke erasotzaile. Izan ere, gure gizartea ez da berdintasunezkoa, eta gainera, eremu askotan biolentzia naturalizaturik dago. Sexu-genero sistemak modu jakin batean egituratzen du gizartea: boterea ematen die gizonezko txuri, heterosexual, heldu, mendebaldeko, klase erdi-altukoei... beste guztien gainetik. Horrela, sozializazio, rol, jarrera, desira, espektatiba... kode batzuk sortzen ditugu, eta horien bitartez hierarkiaren posizio desberdinetan ezartzen gara.

Emakumezkoen **“besteentzako izaki”** gisa bizitzeko hezten gaituzte; horrela, asko baloratzen da **desiratuak izatea** eta gainontzekoentzat **atseginak izatea**. Horrela, maitasunean (eta baita biolentzia existitzen den bikoteetan edo indarkeriarik ez dagoenetan ere) menpekoak izatea dakar, eta bikotearen iritziaren bitartez geure buruaren balorazioa egitea. Askotan, tratu txarren egoeretan eusten dugu geure burua, geure burua sakrifikatzen dugu, geure askatasuna galtzen dugu eta gure maitatzeko gaitasun handiaren inguruko harrotasuna erakutsiz. Gure gainetik botere guztia ematen diegun horiei lotzen gara. “Maitasun erromantikoa”, Coral Herreraren arabera, honako hau da: *la herramienta más potente para controlar y someter a las mujeres, especialmente en los países en donde son ciudadanos de pleno derecho y donde no son, legalmente, propiedad de nadie.*



Bestalde, gizonezkoen **“haien buruentzako izaki”** gisa bizitzeko irakaspena ematen zaie, eta haien helburuak betetzera bultzatuak daude sozialki.

Indarkeriaren erabilerari buruzko eztabaida akademikoak daude. Tradizionalki, indarkeria erabiltzen dutenak **emakumezkoak menperatu** nahi dituzten gizonak direla defendatu izan da. Hala ere, María Jesús Izquierdo autoreak horri buruzko beste ikuspegi bat ematen digu.



Berak esaten duenaren arabera, emakumezkoen kontra esplizituki indarkeria erabiltzen duten gizonezkoak botere patriarkala erabili duten horiek dira; izan ere, botere hori mantentzen dutenak ez dute indarkeriaren beharrik bere boterea gordetzeko. Azken hauek dira patriarkatuaren mantentzearen erantzuleak; izan ere, haien ekintzak ez dira sozialki zigortuak. Dena den, ekintza hauek ere indarkeria dira.

Argi dagoena hau da: emakumeen kontrako indarkeria erabiltzen duenak hau egiten du **horretarako eskubidea duela** uste duelako.

Zer egin dezakegu indarkeriaren aurka?

Prebentzioa

Kontuan hartu behar dugun lehenengo gauza da indarkeriari aurre egiteko modurik hobereena hau ekiditean datzala. Errotik moztuz.



Badakigu genero indarkeria sistema patriarkal injustu batean bizi garelako gertatzen dela, beraz, indarkeria mota hau guztiz deuseztatzeko modurik eraginkorrena **berdintasunezko gizarte** bat eratzea lortzea dela. Inposaketez edo genero rolez haratago pertsona bakoitzak nolakoa izan nahiko duen erabaki ahal izanen lukeen gizarte bat.

Hala ere, badakigu hau lortzeko esfortzu handia egin behar dela, eta nahiko genukeena baino denbora gehiago beharko genukeela. Horregatik, ordura arte zer egin nahi dugun hausnartu behar dugu.

Bitartean, garrantzitsua da gizarteak, pixkanaka pixkanaka **genero ikuspegia** bere baitan izatea, eta horrela, desberdintasunak eta bidezkoak ez diren egoerak identifikatzen ikastea eta jakitea. Horrela, mikromatxismoa eta onartzen ahal dena eta ez dena bereizten ere jakinen du gizarteak, bai kultural bai sozialki. Modu honetan, generoen arteko desberdintasunak identifikatzen jakinen dugu.

Horretarako, oso garrantzitsua da emakumeak **ahalduntzea, geure eskubideak aldarrikatzea, geure arteko aliantzak egitea, batasuna izatea eta dagokigunagatik borroka egitea**. Urtez urte ukatu, kendu izan digutenagatik borrokatzea. Halaber, gizonezkoak bide honetan lagun izatea ere garrantzitsua izanen litzateke, eta



aldi berean haien opresio eta jazarpen propioez ere konturatzea.

Arestian aipatutako hau guztia errazagoa da esperientziak, sentimenduak... konpartitu ahal izateko espazio eta babes talde bat baldin badugu. Izan ere, horrela jaio eta hazi zen feminismoa. Garrantzitsua da jakitea gertatzen zaizkigun gauza eta esperientzia asko ez direla guk bakarrik bizi edo sufritu izan ditugun egoerak, ez direla esperientzia isolatuak eta ez zaizkigula indibidualki gertatzen, eta pertsonala ere politikoa dela konturatzea nahitaezkoa iruditzen zaigu.

Gu geu, Izarbeibarko Asanblada Feminista, beste gauza askoren artean, horretarako gaude, geure artean babes emateko eta entzuteko. Gurekin harremanetan jarri nahi baduzu, geure helbide elektronikoa hau da: izarbe.feminista@gmail.com

Txarra, ez hain txarra

Antolatuak egoteaz, babes sare bat izateaz, zer gertatu zaizun edo zer gerta dakizukeen jakiteaz aparte, garrantzitsua da honako honetaz kontziente izatea: patriarkatua, guri gustatu ala ez, existitzen da (eta hiltzen du).



Horregatik, erabilgarria izan daiteke jakitea zer egin daitekeen arriskutsua edo adi egoteko egoera bat bizi dugunean; horrela, ezustekoak edo beldurrak geure erantzunak edo aktuzioak blokeatzea saihesten ahal dugu.

Horretarako, beste neurri askoren artean, oso erabilgarriak dira **autodefentsa feministako** tailerrak; hauek gizonzkoen eraso matxisten aurrean erantzun bat emateko edo nola jokatze

irakaspenak ematen dizkigute.

Eta dagoeneko gertatu denean?

Askotan, oso maiz, ez dakigu genero indarkeria hor dagoenik, hedabideek salaketa, bortxaketa, hilketa... baten berri ematen diguten arte.

Dena den, honek ez du egoeraren larritasuna txikitzen, eta oso garrantzitsua da gizarteak bere haserrea, sumindura eta sexismoarekiko gaitzespena erakustea.

Horregatik guztiagatik, guk honakoa proposatzen dugu:

- Gutxi gora behera hiru hilabetero, urtean bertan Estatu Espainiarrean patriarkatuaren biktima izan diren hildako kopurua gogoratzeko **protesta kartel edo pankartak** jartzea.

- Salaketa edo hilketa Euskal Herrian gertatzen denean, pankarta eta kartelez gain, **kontzentrazio** bat eginen dugu gertaeraren ondorengo larunbatean, jazotakoa salatzeko.
- Izarbeibarko herriren batean gertatzen baldin bada edo bailararekin harremana duen norbait biktima baldin bada, aurreko bi egoeratan esandakoaz aparte (pankartak, kartelak, larunbatean kontzentrazioa) gertaeratik 24 ordura kontzentrazio bat eginen da.

Jakin badakigu horrelako gertakariak askotan zurrumurruz, zalantzez, bertsio desberdinez betetzen direla. Aintzat hartu behar dugu sistemak boterea daukan parteari ematen diola arrazoa eta sinesgarritasuna, eta ez jazarriari; askotan erasotua izan den emakumearen nahiak ez dira kontuan hartzen. Gure asmoa ez da inolaz ere indarkeria jasaten duen emakumearen nahia errespetatu gabe ekintzarik egitea, eta errugabetasun-presuntzioa ere baloratzen dugu. Ez dugu lintxamendurik nahi, eta ez dugu uste hau eraginkorra izanen litzatekeenik ere. Horregatik, kontzentrazioak sexismoaren eta erasoaren aurka protesta egiteko izanen dira, eta hauek sufritzen dituzten emakumeei babesa emateko helburuarekin. Era berean, emakumearekin hitz egiteko espazio bat bultzatzen ahal da, betiere bera presionatu gabe eta bera ongi sentitzeko helburuz.



Aintzat hartu behar da indarkeria sufritu duenaren pertzepzio subjektiboaren arabera izanen dela erasoaren maila, eta horren arabera erantzunen zaiola biolentziari¹².

Eta gure artean gertatzen baldin bada?



Aurretik esan dugun bezala, pertsona guztiek pasa ditzakegu besteen mugak, arazoa hori ez onartzean datza. Eta hau onartzen nekezagoa da militanteak diren pertsonak baldin badira erasotzaileak, edo espazio askeetan gertatzen baldin badira; izan ere, teorikoki toki hauetan denok gara

al da, nola autonomikoki hala estatu mailan aien erantzun judiziala ezagutzeko asmoz.

feministak eta guztiok gaude berdintasunaren alde.

Erasotzen duen pertsona kide bat baldin bada, zailagoa da (beti zaila izan arren) hau onartzea, eta egoerari aurre egitea ere nekeza da. Izan ere, beharbada pertsona honekin momentu asko bizi izan ditugu, eta lagun izatea ere normala izaten da. Bestalde, berarekin identifikatuak sentitu gaitzke egunerokoan, eta enpatizatzen ahal dugu. Horrela, “besteak” (mozkorrak, eroak...) “gu”-ra hurbiltzen dugu.



Mugimendua ez ahultzeko ez dugu sortu den “talde batasuna” ere apurtu nahi. Horregatik, eta momentuko emozioek geure ekintzak lainotu ez ditzaten, hobe da honi buruz alde aurretik hausnartzea. Hala ere, taldeak edo kolektiboak ez badu aurretik gai hau (genero indarkeria) ongi eta sakonki landua, eta egoerari aurre egiteko gai ez baldin bada, hobe da kanpoko laguntza eska dezala; izan ere, egoera gaizki gestionatzen badugu, emakume erasotua izan daiteke berriz kaltetua.

Lehenik eta behin, kasu bakoitzean zein jarrera hartu eta nola jokatu ezin dugu esan, kasuz kasu hau aldatu egiten delako, ez dago formula perfekturik honi aurre egiteko. Hoberena kontzeptuak berriz begiratzea, gaiaren inguruko bibliografia aztertzea, eztabaidak sortzea... da.

Aintzat hartu behar da boterearen hierarkia ere kasu hauetan mantendu egiten dela, eta **batzuetan gizonezkoaren bertsioa zuzenean sinesteko joera** izan ohi dugula, horrela sistema patriarkala birproduzitzen ari garela kontuan hartu gabe eta gainera, seguraski geure babesa behar duen kide bat gutxiesten dugula. Erasotua **zer gertatu den azaltzeko gai** da, eta bere bertsioa **ezin da zalantzan jarri**. Ezin da esan bertsio hori objektiboa denik (bat ere ez da objektiboa), baina oso garrantzitsua da erasotuari bere gorputzaren eta bizitakoaren gaineko boterea ez kentzea. Askotan, emakume eta gizon gisa jaso dugun heziketa dela eta, erasotzaileak arrazoiaren perspektibatik hitz egiten du (eta horrek balio gehiago du sozialki), eta erasotua sentimenduen ikuspegitik, eta autokonfiantza gutxiagorekin (gainera, segurtasun handiz hitz egiten dugunean, historiko eta exajeratuak garela esaten digute). Sarritan, gaia politikoa eta kolektiboa izanen ez balitz bezala, emakumeari prestigioa kentzen dioten zurrumurruek eta irainak zabaltzen dira. Ahalik eta informazio gehien bildu nahi baldin badugu eta bi aldeek bertsio osoa ezagutu nahi badugu, beste pertsona batzuen mugak gaintzen egoten ahal gara, eta beraz, beste eraso bat egiten ariko gara. Zenbait kasutan, emakumeak egia esan balu, ezkutatzeko deus ez lukeela izanen eta kolektiboari azalpen egokiak emateko gai izanen litzatekeela pentsatzen ahal badugu ere, kontuan hartu behar da egoera oso zaila dela, are gehiago



talde baten aurrean zerbait azaltzeko orduan. Dena den, beti eman behar zaio aukera espazio horretan azalpenak eman ahal izateko. Beldurra ere egon daiteke, erasotua den emakumeak botere gehiegi izan dezakeela eta, egoera aprobetxatuz eta gizonen bat kaltetuz. Baina ulertu behar da hau gertatzeko aukerak oso txikiak direla, eta kontestu honetan emakumearen egoera babesgabea dela eta kritikak eta erru sentimenduak ere tartean egoten direla.

Esan nahi duguna ez da gizonarekin ez mintzatzea, eta bere bertsioa ere kontuan ez hartzea... Besterik gabe, pertsona guztiak sistema patriarkalean sozializatu gaituzte eta, beharbada inkontzienteki, gizonaren hitza baliagarri edo egiazkotzat hartzen ahal dugula (izan ere, jaiotzen garenetik horretara bideratzen gaituzte eta idazle, errege, filosofoak... gorai patzen dira). Posible da batzuetan **ekintza bera guk geuk justifikatzea**: mozkor zegoen, drogatua zegoen, gaizki pasatzen ari da... Eta besteetan, emakumea bera jotzen dugu erruduntzat: berak probokatu zuen, "calientapollas" bat da... Erasoa bat ez du egoera batek berak ere justifikagarri egiten. Polizia batek kide bat erasotzen dugunean, ez dugu justifikaziorik egiten. Edozein erasori aurre egiteko erantzuna beti da egokia, bakarrik pertsonak berak baitaki nola ari den momentuan bertan sentitzen, eta berak bakarrik dakielako bere burua defendatzeko momentu horretan zein tresna zituen. Erasoa bera kritikatzeko da, ez erantzuna.

Garrantzitsuena da egoera zail hori bizi behar izan duen gure kidea eroso sentitzea. Horretarako, nahitaezkoa da bera deseroso eta arriskuan sentituko ez den "**segurtasun espazio**" bat sortzea. Espazio hau definitu behar da, eta berez, seguru asko hartuko den erabakia da erasotzailea bertan ez egotea, hau kontzientziatu bada ere eta bere jarrera onartu eta hobetu badu ere, emakumeak hala nahi duen arte, behintzat. Espazio feminista, horizontalak... defendatzen ari baldin bagara, besteak errespetatzen ez dituen norbaitek ez du lekurik bertan. Gainera, pertsonak horrek alde egiteko erabakia hartzen ez bada -eta hau gehienetan gertatzen da-, askotan emakumeak taldea uzten du, ez baitago gustura; horrela, erasotzaileak egin duen ekintzarekin bat egiten ari gara, nahita ez bada ere. Honek ez du inola ere esan nahi berarekin kontaktu pertsonala mantentzen jarraitu nahi ez dugunik; gertatutakoa argitzeko beharra senti dezakegu, zergatik egin duen jakitekoa, edo erasoaren gaia berarekin lantzen ahal dugu. Horretarako, dena den, gertatutakoa onartu egin behar du. Erasoa edo erasotzaileak babesten dituzten pertsonak ere erasotzaile gisa kontsideratuko dugu. Beste batera begiratzen dutenak, jarrera pasiboa dutenak edo gertakaria gutxiesten dutenak, konplize izanen dira. Honek ere ez du esan nahi erasoak kanporatze automatikoa dakarrenik. Lehen esan dugun bezala, eraso eta indarkeriek intentsitate desberdinak dituzte, eta zenbait gatazka hitz eginez edo beste lan mota batzuekin



konpontzen ahal dira. Hori bai, erasotua izan den emakumea, sortzen ari garen espazioan seguru eta eroso sentitu behar dela eztabaida ezina da.

Dena den, hartzen diren neurriak, beti **emakume erasotuaren iritzia** kontuan hartuz hartu behar dira beti, eta bere nahiak, desioak, erritmoa eta prozesuak errespetatu behar ditugu. Ulertu behar da agian pertsona honek ez diola mundu guztiari gertatutakoa kontatu nahiko, eta are gutxiago publikoki edo asanblada batean. Oso zaila da erasotua bere burua biktima gisa onartzea; izan ere, beste gauza batzuren artean, biktimen profilararen irudi bat dugu barneratua (pobreak, ikasketarik gabeak, baztertuak...) eta honek betirako irauten duela uste dugu, eta hori ez da erreal. Kide bat edo bikotea baldin bada erasotzailea, emakumeak ez zuen esperoko hau gerta zitekeenik, eta "hau ezin zait niri pasatzen ari" bezalako ideiekin nahas daiteke. Gainera, militanteen artean ideia okerrak ditugu: feminista eta antisexista izanik, sistema patriarkalaren muga guztiak gainditu ditugula uste dugu, eta ez dugula kontraesanik. Horrelako ideiek tratatu txarra edo gizon batekiko dependentzia onartzeko arazoak ekar ditzake, taldean desengainua eraginen dugula pentsatzen baitugu..

Ser feministas o ser una mujer activista no implica, afortunadamente, no necesitar apoyo de nuestras amigas y amigos, ni ser completamente autónoma, ni tener que resolver cualquier problema personal sólo individualmente. Más aún, desafortunadamente, todas reproducimos formas de dependencia heteropatriarcal y algunas veces nos comportamos de modo sexista. Reconocer limitaciones y contradicciones, compartir nuestros malestares en el diálogo con unas y otros, pedir ayuda, consejos, soporte, son prácticas feministas que nos pueden ayudar a crecer tanto a nivel individual como de manera colectiva. ("Tijeras para todas")

Biolentzia sufritu eta sufritzen duenari **euskarri politiko zein emozionalak** eskaini behar zaizkio. Emakume bat eraso baten inguruan mintzatzeko hasten denean, esan nahi duena intuizioz jarraitu behar dugu, eta ezin dugu epaitu edo esaten duenari uko egin. Erasoa publiko egin nahi badu, laguntza ematen ahal zaio, edo emakumearen eta beste talde batzuen arteko bitartekaritza sustatzen ahal da, beharrezkoa balitz. Espazioak sortu behar dira: isiltzen dugunaz mintzatu ahal izateko, argi ez ditugun gaiei buruz hitz egiteko, egoerari edo erreakzioari buruz aritzeko...

Erasotzaileari dagokionez, **lan pertsonala** sustatzen ahal da, bere **pribilegio** eta hauen inguruan egiten duen **erabilerari** buruz. Emakumearen segurtasun espazioa beti gorde behar dugu, beraz, erasotzailea ezin da emakumea egoten den tokietan egon, eta hau gure esku dagoenean, esandakoa ziurtatu behar dugu. Horrela izanen dela ziurtatu ezin dugunean, behintzat hala izaten saiatu behar gara. Erasotuaren oniritziarekin eta lehenbiziko momentutik bere iritzia kontuan hartuz hartuko dira betiere neurri hauek. Hala ere, guk geuk ere planteatu dezakegu ea erasotzaile batekin konpartitu nahi dugun espazioa. Opresioak sentitzen dituzten pertsonen ez badiegu gure espazioetan eroso egon daitezkeen ziurtatu, gu geuk espazio baztertzailak sortzen ari gara.



Norbait erasotzen denean, ez gara beti horretaz **kontziente** izaten. Batzuetan, nahi gabe mugak gaindi ditzakegu. Horretarako, oso garrantzitsua da baiezkoa, **baimena**, eta hori harremanean parte hartzen ari diren pertsonen arteko akordioaren fruitu izan behar da. Baiezkoak gehien laguntzen ahal digun egoeretako bat, bakarra ez izan arren, sexu harremanetan izaten da. Aintzat hartu behar da beste pertsona nola sentitzen ari den, eta ezin dugu bakarrik guk sentitzen duguna kontuan hartu. Ezezkoa ezetz da, eta hau lehenengo pausua da, baina haratago ere joaten ahal gara; izan ere, jarraitzen badugu, beste pertsona deseroso senti daiteke eta ezetz esan, erantzukizuna bere esku utziz. Baiezkoa edo ezezkoa hain argi ez daudenean (isiltasuna ezezko bat izan daiteke), beste pertsona nola dagoen galdetu behar da, eta ez du zertan giroa eten.

Batzuetan ez gara erasoei buruz mintzatzen, baizik eta **botere harremani** buruz. Horrelakoek berdintasunezko espazioek ez lukete tokirik izan behar, baina gertatzen dira: dependentzia harremanen sorrera, emakume kideen gutxiespena “haiek (gizonak) gabe ezer ez direla” sinetsarazteko...



Pertsona guztiek dute aldatzeko aukera. Erasotzaile bat ez da zertan betiko erasotzailea izan. Rolan eta estereotipo patriarkalen **deseraikitzea** guztiok egin dezakegun zerbait da; dena den, balore hauek barneratuago dituztenei gehiago kostatzen ahal zaie prozesu hau egitea, eta deseraikitze prozesu hau egiten ez badute, ondorioak okerragoak izanen dira. Zailena ez da honi buruz teoriak egitea, barrukoa aldatzea baizik.

Hala ere, desikaspenezko prozesu hauek zailtzen dira, mugimenduen barnean beste eraso mota bat gertatzen baita, “**antifeminismoa**”. Honen adibide bat ematearren, espazio ez mistoek eragiten dituzten eztabaidak eta kritikak aipatzen ahal ditugu, aurretik inolako hausnarketarik egin gabe suertatzen direnak: zergatik dagoen espazio hauek sortzeko beharra, zer lantzen den, espazio horietan dauden pertsonetikiko konfiantza... Borroka askotan, gizonezkoek ez dute parte hartzen eta ez dute horren inguruan hausnartzen, eta ematen du gehienei ez zaiela gehiegi interesatzen hauetan parte hartzea, feminismoa ez baita haientzat lehentasunezko gaia. Hau argi ikusten da jarduera mistoetan. Nork ez luke errespetatuko arrazakeriaren aurka borrokatzeko pertsona beltzek beren burua antolatzea?

Gertatzen den bitartean... eta festa guneeetan?


Festa guneeetan eta festa egunetan, pertsonak normalean desinhibitzen gara, geure alderik positiboak erakusten ditugu, baina baita geure



aspekturik krudel eta gogorrenak ere. Festa gune hauetan, beste espazio askotan bezala, babosoak, bortxatzaileak, mugak gainditzen ditugun pertsonak... aurkitzen ahal ditugu. Era berean, gertakariak justifikatzeko ohitura dago, hainbat aitzakia azaleratzen dira: drogak, probokazioa, gaizki ulertuak...

Erasotzailetzat edo bortxatzailetzat dugun pertsona ez da ongi etorria borroka espazioetan, ezta festa guneetan ere, eta bere presentzia hutsa feminismoarekiko eta borroka politikoarekiko errespetu falta da.

Lehenik eta behin, jai gune batean eraso bat gertatuz gero, hau **identifikatu eta ikusarazi** behar da. Erasotua sentitzen denak, nahi badu, molestatzen ari zaion pertsonari nola sentitzen ari den **esaten** ahal dio, eta jarrera hau gelditzeko eskatu. Honek hala egiten ez



badu, bere kidetasunezko taldeari esaten ahal dio, babes bat izateko helburuz.

Erasoaren intentsitate edo larritasunaren arabera, **jarrera hori alde batera** utz dezan errepikatzen ahal zaio, edo **festa uzteko** eskatu. Erasoa argi baten aurrean baldin bagaude, babosea batez haratago, lehen aipatu dugun **segurtasun espazioa** sortzea ezinbestekoa da, eta beharrezkoa bada, mediku asistentzia eskatu. Erasotuak erabakiko du zer egin behar den, eta horren arabera gauza bat edo beste egingen da.

Erasotzaileak ez badu festa utzi nahi, eta era berean hau espazio politiko bat baldin bada, bertako taldeak tokitik botako du erasotzailea, han dauden pertsona guztientzako gutxieneko kalte fisikoa eraginez. Adibidez, erasotzailea airean eraman daiteke tokitik. Edo, egoera ikusteko beste metodo batzuk erabil daitezke, adibidez, tokiko musika kentzea erasotzaileak bertatik alde egin arte.

Jarraibide hauek beste ere aplikatzen ahal publikoan.

Ez da ahaztu behar mantendu behar direla garrantzi handikoa da:



kontestu batzuetan dira, batez ere eremu

erasoetatik aske espazioak, hau

Ondorioak

Honek ez du pausuz pausu eta hitzez hitz jarraitzeko gida bat izan nahi, eta ñabardurak ere beharrezkoak ditu. Egoera bakoitza aldakorra da, eta pertsona bakoitzak, momentu bakoitzean desberdin bizi ditu gauzak: hori beti hartu behar da kontuan.

Honek ez du berrikuspenik gabeko protokoloa izateko intentziorik, kontestu eta egoerei egokituko dena baizik. Ezagutzen ditugun egoerekin, kolektiboki ikasten dugunaz baliatuz eta beste talde batzuek eskaintzen ahal digutena ikusiz, protokoloa aldatu daiteke etengabe.

Bitartean, erabili ahal izateko tresna hau dugu eskuartean, eta pixka bat lasaiago bizitzeko aukera ematen ahalko digu, utopien bidean eta mundu hobeak bilatzen jarraitzeko.

Dena den, ezin dugu ahaztu protokolo hauek ez dutela inolako erabilgarritasunik asanblada, kolektibo, espazio “libre” bakoitzak ez badu barne hausnarketa eta barne lanik egiten; honez gain, pertsona bakoitzak, indibidualki, zein rol eta jarrera erakutsi dizkioten pentsatu behar du, eta nola birproduzitzen duen hau. Denen lana eta hausnarketa da.

Baina hemen borrokarako, ikasteko eta hazten jarraitzeko gaude.

GORA BORROKA FEMINISTA!

Asanbladan eztabaidatzeko proposamena

Gai honen inguruan pixka bat lan egin nahi baldin badugu, lerro honen azpian hainbat galdera ditugu, asanbladan eztabaidatzeko. Eraso sexistei buruzko jardunaldi batzuetan Bartzelonako fanzine batetik hartutakoak dira.

Harremanen inguruan...

Mugak

- Zer dira mugak? Nola ulertzen ditugu?
- Mugak aldakorrak direla uste duzu?
- Uste duzu desberdinak direla gizon eta emakumeak desberdin sozializatzen garelako, desberdin hezten gaituztelako?
- Mugak markatzeko zein tresna uste duzu dituzula?
- Mugak interpretatzen saiatu zara kontzienteki?

Baiezkoa, onarpena

- Uste duzu geure harremanetan baimena bilatzen dugula?
- Nola transmititzen da baimena?

Nolakoak dira gure harremanak egiazki?

- Uste duzu gure harremanak mugetan eta baimenetan oinarritzen direla?
- Gure giroetan genero rola ditugula uste duzu?

Erasoak

- Nola definitzen duzu eraso bat?
- Zure lagunekin, bikotekidearekin noizbait hitz egin duzu erasoen inguruan?

- Sexu harremana izaten ari zinen pertsona batekin. Noizbait ez zara guztiz ziur egon beste pertsonak benetan egiten ari zinetena egin nahi zuenik?
- Egiten duzun zerbaiten inguruan beste pertsona bat gaizki sentitzen bada, uste duzu bere erantzukizuna dela sentitzen ari dena esatea?
- Nola uste duzu norbaitek espresa dezakeela gertatzen ari dena gaizki dagoela?
- Norbaiti noizbait galdetu al diozu zein seinale jasotzen ahal zenukeen gertatzen ari dena bere gustukoa ez bada eta hori esaten ez baldin badaki?
- Gai hauei buruz harreman “serioetan” hitz egiten duzu edo harreman kasual batean ere honen inguruan hitz egiteko eroso sentitzen zara?
- Zein erreakzio duzu egiten ari zinenarekin norbait eroso sentitzen ez bada? Jarrera defentsiboa hartzen duzu? Errudun sentitzen zara? Azkenean beste pertsonak kontsolatu eta zaindu behar zaitu, zurekin enpatizatzen du? Zure istorioaren bertsioa kontatzen diozu eta egoerarekiko bere ikuspuntua aldatzen saiatzen zara?
- Jendeari gertatu zaizkion abusu edo eraso gertaeretan pentsatzen duzu?

Espazio kide batean, eraso bat

- Zein erreakzio duzu eraso kanpoko espazio edo espazio ezezagun batean gertatzen bada? Berdina da zure erreakzioa hau espazio propio batean gertatzen bada?
- Eraso baten aurrean, zein neurri uste duzu hartu behar direla mundu guztiaren segurtasuna bermatzeko?
- Uste duzu justifikagarria edo beharrezkoa dela espazio publikoan erasotzailea denaren kanporatzea? Zergatik? Zein egoeratan?
- Uste duzu erasotua izan den pertsonak gertatutakoa publiko egiteko betebeharra daukala? Zer uste duzu komunikatu publikoen inguruan? Eta erasotzailearen argazkiak publikatzeari buruz? Zein neurritan eragin dezake, zure ustez, eraso publiko egitea pertsona erasotuaren bizitzan?
- Eraso bat ikusi izanaz seguru baldin bazaude, baina erasotuak ez badu horrela ikusten, zein da, zure ustez, hartu behar duzun jarrerarik egokiena? Zer egin beharko zenuke? Zerbait egiten baduzu, pertsona horren mugak gaintzen ibiliko zara? Pertsona erasotua zuzenean inplikatu ez duen zerbait egitea bururatzen zaizu? Zer?

Nola landu pertsona erasotuaren babesa?

- Zure hurbileneko pertsonekin, eraso bat sufritzeko kasuan, zein euskarri jaso nahiko luketen hitz egin duzu? Uste duzu erasotuaren erantzukizuna dela bere beharrak definitzea edo bere nahiekiko paraleloki zerbait egin dezakegu?

- “Biktimak” ez badu ezer egin nahi baina ezikusiarena ez egiteko betebeharra baldin baduzu, zer gertatzen da?

Baliabideak

1. 016 TELEFONOA

016 informazio eta aholku juridikoak eskaintzen dituen telefonozko zerbitzua da, genero indarkeriari dagokionez. Osasun, Gizarte Politika eta berdintasun Ministeritzaren menpekoa da. Guztiz doakoa da eta fakturan ez da deia agertzen. Estatu guztian informazio eta aholku zerbitzua eskaintzea du helburu. Larrialdia baldin bada, gure erkidegoko 112ari bideratzen ahal dizkio deiak.

365 egunetan eta egunean 24 orduz hartzen dira deiak, hainbat hizkuntzatan: euskara, gaztelania, katalana, galegoa, inglesa, frantsesa, alemaniera, arabiera, bulgariarra, txinera, portugesa, errumaniera eta errusiera. Ordu-tegi mugatua beste 42 hizkuntzatan ere badago zerbitzua. 900 116 016 telefono zenbakian, entzumen minusbalioa dutenak artatzen dira.

2. INSTITUZIOEN ARTEKO KOORDINAZIOA

Berdintasunerako Institutu Nafarra Nafarroako Foru Komunitatean emakumeen kontrako indarkeriarekin amaitzeko eta honi aurrea hartzeko sortu zen organua dugu.

Instituto Navarro para la Igualdad
C/ Carlos III, 36, 2º • 31003 Iruñea
Telefonoa: 848 421 588
www.igualdaddegenero.navarra.es

3. GIZARTE ZERBITZU OROKORREN ZORROA: LAGUNTZA EKONOMIKOAK ETA ZERBITZUAK

Gizarte Zerbitzu Orokorren Zorroa 169/2008an ekainaren 17an onartu zen dekretu bidez, eta 6 zerbitzu eskaintzen ditu, denak bermatuak.

- **Larrialdi zentroaren zerbitzua:** larrialdizko ostatua, harrera eta orientabide soziala; zerbitzua bakarrik edo haien seme-alaba adingabeekin edo biktimak bere tutoretza edo zaintzapean edo harrerapean dituen pertsonekin jaso dezake emakumeak. 112 telefonoaren bidez egiten da zerbitzua.
- **Abegi-etxearen zerbitzua:** egunero, 24 orduz irekita.

Telefonoa: 112 848-421588

Fax: 848-421580

Web orria: http://www.navarra.es/home_es/Servicios/ficha/2586/Casa-de-acogida-para-victimas-de-violencia-de-genero#presentacion

Posta elektronikoa: inigualdad1@navarra.es

- **Tutoretzapeko etxebizitzaren zerbitzua.**
- **Genero indarkeriaren biktimei arreta integrala emateko zerbitzu espezializatu.**

Genero indarkeriaren biktimei arreta integrala emateko taldeak. Ingurune irekiko esku-hartze zerbitzua, biktimei informazioa eman, bideratu eta, beharrezkoa denean, laguntza ekonomiko, lan arlokoa eta/edo psikologikoa emateko.

Onuradunak: genero indarkeriaren biktimak.

Jasotzeko baldintzak: Oinarrizko gizarte zerbitzuen edo harrera baliabideen txostena.

Zerbitzua irekita: urteko lan egun guztietan, astelehenetik ostiralera.

Prestazio mota: bermatua.

Baliabide mota: Arreta ambulatorko zerbitzua.

Zerbitzuaren intentsitatea:

- Erabiltzailearen eta haren ingurunearen balorazioa: ordu erdiko elkarrizketa.
- Arreta psikologikoa, banakoaren arreta plan baten arabera: hilabete bat.
- Akonpainamendua, ingurukoentzako arreta, ebaluazioa eta jarraipena: 100 ordu sei hilekoan.

Hainbat eta hainbat helburu anitz ditu zentruak: laguntza eta babes soziala eskaintzea, berehalako koordinazioa eta arreta, egoera larrietan. Emakumeen eskubideen inguruko aldarrikapenak sustatzea eta jarraipena egitea, prebentziozko formakuntza egitea, garapen pertsonalari eta gatazken konponbideari dagokionez, laguntza psiko-soziala eskaintzea indarkeria inguruneetan bizi diren adingabekoei etab... Honez gain, aspektu juridikoetan laguntza eta koordinazioa eskaintzen ditu, formakuntza eta lanean hastea laguntzea, egoera zailetan prebentzioa eta tratu txarrak egon daitezkeela detektatzea... Gainera, programak martxan jartzea herritarren talde zehatzei zuzendua. Ekintzak, edukiak eta ondorioak beste zentro batzuekin konpartitzea eta hauek koordinatzea; Nafarroako Gobernuarekin eta udalekin ekintza eta egitekoak indartzea.

- **Larrialdi sozialeko laguntzak.**
- **Genero indarkeriaren biktimentzako laguntzak, baliabide ekonomikorik eza eta lanpostu bat erdiesteko zailtasun bereziak dituztela frogatuz gero.**

Informazio gehiago: 902 165 170

4. LARRIALDIZKO ARRETA PSIKOLOGIKOA: DELITUAREN BIKTIMEI ARRETA

Laguntza eta babes psikologikoa eskaintzen du doan, eguneko 24 orduetan. Delituaren Biktimei Arreta deituriko organuaren menpekoa da, eta **112** telefono zenbakiaren bitartez jartzen ahal gara harremanetan haiekin; bestela, horrelako egoera larrietan lan egiten dutenek (polizia, osasun langileak, justicia langileak...) hala eskatuta.

5. EMAKUMEENTZAKO JUSTIZIA ARRETA ZERBITZUA

Berdintasunerako Nafarroako Institutuak sustatu eta finantzatzen du, Nafarroako Abokatu Kolegioekin duen akordio baten bidez arreta zerbitzu hau. Aholku zerbitzua da, doanekoa, informazio, orientazio eta aholkularitza zehatzak ematen dituen genero indarkeriari dagokionez. Laguntza eta aholkularitza iraunkorrak eskaintzen ditu.

Colegio de la Abogacía de Pamplona

(Agoitzeko partidu judizialeko emakumeak ere artatzen ditu)

Avenida del Ejército, 2, 10. • 31002 Iruñea

Telefonoa: 948 221 475. Faxa: 948 206 287

Colegio de la Abogacía de Tudela

Pablo Sarasate, 3, 1. A • 31500 Tuteria

Telefonoa: 948 825 671. Faxa: 948 824 741

Colegio de la Abogacía de Estella

Plaza de los Fueros, 12, entreplanta • 31200 Lizarra

Telefonoak: 948 550 612 - 948 556 490. Faxa: 948 554 501

Colegio de la Abogacía de Tafalla

Avenida de Severino Fernández, 52 • 31300 Tafalla

Telefonoa: 948 704 719. Faxa: 948 704 708

6. JUSTIZIA ZERBITZU SOZIALA (DELITUAREN BIKTIMEI ARRETA)

Zerbitzu honek, presazko arreta psikologikoa eskaintzeaz gain, beste hainbat funtzio betetzen ditu: babes juridiko eta psikologiko iraunkorra ditu eta Nafarroako Babes Aginduen Koordinazio Puntua da.

C/ Monasterio de Irache, 22, 1. eskuin • 31011 Iruñea

Telefonoak: 848 423 376 / 848 427 671 / 848 421 387

7. BALIABIDEAK HEZKUNTZA EREMUAN

Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentuak hezkuntza eremuan gertatzen diren indarkeria egoerentarako neurriak hartzeko organu arduradun bat dauka. **Elkarbizitarako Aholkularitza** da, eta prebentzioa lantzen du ikastetxeetan, elkarbizitarako eta berdinen arteko harremanak hobetzeko baliabideak eskainiz. Aholkularitza zuzena ematen zaie ikasleei, irakasleei eta familiei, telefono eta posta elektronikoen bidez:

Izarbeibarko Asanblada Feminista

izarbe.feminista@gmail.com

Telefono zuzena eta erantzungailu zerbitzua: 900 841 551

Posta elektronikoa: convive@cfnavarra.es